



Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA

Ospe txarra


OSPE TXARRA hienen aldamenean joan izan da memoria dudanetik. Duela denbora bat Jesus Mari Olaizola *Txilikuren Piztiarioak* liburuan deskubritu nuen orain hienez dakidan gutxia, nahikoa bai, nolahi ere, eremu zabaletan bizi ohi den animalia gaineke iritzia aldatzeko. Ospe txarrak zizelkatutako irudia egile zarauztarrak jasotzen duen deskribapenarekin bat zetorren: “(...)Kutsu ezkor eta negatiboa izan du beti: zikina, sarraskijalea, likitsa, faltsua, berekoa eta zekena”. Tradizioaren baitan gizakiek beren buruaz izan duten pertzepzioa jasotzen du *Txilikuk*: “Antzinakoentzat, inola ere, hiena animalia arraroa eta gutxi fidatzekoa bilakatzen zuena bere sexu-joera ez oso garbia zen. Ovidioren *Metamorfosiak* liburuan aipatzen da hienak sexuz aldatzeko ahalmena dutela, eta hartatik hartuta edo, halaxe jasotzen du *Physiologus* kristauak ere: “Orain arra den moduan izan daiteke gero emea, eta likitsa eta zikina da, bere natura nahierara aldatuz”. Berrikiago zientziak bere argibidea eman dio pikarta deritzon hiena motari. “Hiena pikart emeak sexu organo oso bitxia du: alua edo bulba ez da ikusten, eta klitoria oso garatua du, arren zakilaren pareko. Bestalde, (...) hiena emeak, menderatzaileak batik bat, ar itxura handiagoa izan ohi du arrak berak baino, are gehiago, arren aldean emeak handiagoak eta oldarkorragoak izanik, diren bezala”.

Hienen ospe txarrak feministen ospe txarrera eraman dit gogo. Alferrik egindako konparaketa ez dela frogatzen du, gainera, XVIII. mendeko pasadizo batek. Gizon-emakumeen eskubide berdintasuna eskatzen aurrenatarikoa izan zen Mary Wollstonecraft idazle eta pentsalari ingelesak 1792an *A Vindication of the Rights of Woman* argitaratu zuenean, garaiko kontserbado-

reek beren gorrotoa askatu zuten eta “hiena gonaduna” ezizenez bataiatu.

Hiena emeen izen txarra arrekiko alderapena egitetik dator: arren itxura handiagoa dute arrek berek baino, arrak baino handiagoak eta oldarkorragoak dira, eta bere genitalak arrarenekin konparatuz deskribatzen dira. Arra da neurria eta hienaren estigma emetasun araututik ateratzea. Feministon ospe txarraren arrazoiak ez dira ibiliko horretatik urrun, nahiz feminista bakoitza bere amaren alaba izan eta batzuk besteak baino ospe dezente txarragoz zipritindu, edo are, instituzioek fagotizatutako feminismo hainbatek ospe onaz ere gozatu.

Fama txarra ez dugu guk irabazi, ordea, ipini egin digute diskurtso nagusiaren bozgorailuek, hain justu, feministoaren tradizioa ozta-ozta aurkigarri egiten duten horiek beroriek. Gaur, abortuaren lege erreformaren aurkako aldarriak eta ekintzak batzeko ordua dugun honetan, nago feministon aldera makurtzen den ospearen itzalak erreformari bidegabea eta atzerakoia irizten dion hainbaten ahotsa eta pultsua feministongana batzea zailtzen duela. Orain arte borroka feministara gehitu ez direnak orain uholdeka ez dira, noski, elkartuko. Guk, alabaina, ondo dakigu abortua eskubide bat dela eta aho batez errepikatzen dugu: “Gure gorputza, gure erabakia. Abortua seguru, libre eta doan”. Badakigu abortutik haraindi doala hau. Erreforma-asmo hipokrita eta klasista honek gure gorputzen gainean eta gure bizitzen gainean erabakiak hartzeko eskumenak kentzea du helmuga, baita gure gorputzen gaineke kontrola ere. Niretzat momia legegile kontserbadore horien diskurtsoan ospe txarduna izatea ohorea da. Euren ametsetan hiena likits baten gainean trostan doan hura izan nahi nuke. Zenbaitez hobe litzatekeen jendarte justu baten alde zaudeten lagun guztiak feministen eta hienen aldamenean agertuko bazinete amets horietan. ■



Antton Olariaga

